

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Dassance jauna, buru, Mitxelena, Lekuona, Arrue, Villasante, Irigaray eta Lafitte jaun euskaltzaiñak. Zugasti, Loidi, Etxaniz, Artola, Zabala, Valverde, San Martin eta Irigoyen jaun urgazleak.

Dassance jaunak itz batzuetan Iñazio Maria Etxaide Euskaltzainburuaren eriozteagaitik atsekabea agertu dau.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Etxaide jauna zanaren eriozteagaitik naigabea agertuz lau karta irakurri dira: F. Krutwig, Jesus Oleaga, Miren Oyanguren eta Aita L. Villasante-nak.

Irigoyen-ek diño egin bear zan legez Urriaren 31-an emon zala Domingo Agirre novela saria Bilbon.

Irigoyen-ek diño Bizkaiko Diputaziñoak aurtengo presupuestoan berrogetaamar milla peseta Euskaltzaindiari emoteko daukazala eta oraintsu egin dan eskabidea ontzat arturik datorren urteko presupuestoan beste berrogetaamar sartuko dituezala.

Gipuzkoako bertsolarien txapelketa nagusia Ernani-n Abenduaren 9-an eta Euskalerriko nagusia Donostian Abenduaren 30-ean egiteaz berba egin da.

Jesus Oregi jaunak Bergara-n egin zan bertsolarien txapelketea zinta magnetofoniko batean erregaloz emon deutso Euskaltzaindiari. Eskerrak emon bekioz.

Juan Ramon Urkijo jaunak *Revista Internacional de los Estudios Vascos*-en lenengo aldiko ainbat ale erregaloz emon deutzaz Euskaltzaindiari bere bigarren koleziñoa osotu daian eta baita Julio Urkijo zanak argitaratutako lan batzukbe. Eskerrak emon bekioz.

Bertso paper sariketea erabagi bear da. Euskalerriko bertsolarien txapelketan parte artuko dauen juraduak berak egin lei Abenduaren 30-a baiño leen.

Aita Zabala-k Euskalerriko bertsolarien txapelketa nagusi osoa magnetofonoan jaso ta gero *Auspoa liburutegia*-n argitaratu gura dau eta Euskaltzaindiari eskea giten deutso. Egin lei eta eskerrak emoten jakoz egiteagaitik.

Irigoyen-ek Etxaide zanaren paper bat irakurri dau eta bertan diño Euskaltzaindiak eskribitzeko makiña bat erosi bear leukeala. Izan be orren bearrean dago len daukana oso zaarra dalako. Bere borondatea egin bedi.

Irigoyen-ek Bilboko apezpiku jaunaren eretxi bat irakurri dau Etxeandia jaunari zuzendu deutzan karta batetik. Espaiña osorako agertu dan dotriña barria Euskaltzaindiak Bizkaiko euskerara itzuli daian gura leuke. Eskabidea Erromatik datorrean egingo leuskigu itzuli gura bagendu. Aita Villasante izentetan da itzulpena egin

daian eta ekarri begi Euskaltzaindira. Arrue eta Aita Zabala Gipuzkoako apezpikua-ri bisita bat egiteko izentau dira Gipuzkoan be ia beste ainbeste egin leitekean. Bein Bizkaikoa egin ezkeru Gipuzkoakoa egitea erraza da. Nafarroakoa egiteko Pedro Diez de Ulzurrun mediku jauna izentau da. Bere eskuetan isten da an ze pauso emotea komeni dan.

Juan Flors jaunak Aita Villasante-ri zuzendu deutsan karteia irakurri da. Axularrren obrea argitaratzearen gaiñean da. Arrue jaunak diño eskatzen deuskuezan kondiziñoak argitaratzeko Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialaren bidez erabaki leitezala. Emon bediz pausook.

Mitxelena jaunak diño utsik dagozan karguak bete baiño leen dagozan euskaltzain utsuneak bete bear litzakezala.

Lafitte jaunak diño Haritschelhar eta Iratzederren sarrera itzaldiak lenengoarena Baigorri-n eta bigarrenarena Belloc-eko komentuan egin gura dituezala datorren urtean. Oso begi onez ikusi da.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

L. Mitxelena